

## **2. ZABALGUNEKO HJPBa.**

### **AURREPROIEKTUA AURKEZTEKO ONLINE SAIOA – 2020ko URRIAREN 26a**

IRUÑEKO UDALEKO HEZKUNTZA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA  
GAZTERIAKO ALORRA



## TXOSTENAREN EDUKIA

---

SARRERA: DATU OROKORRAK.....	2
SARRERA AINHOA GUELBENZU PARTAIDETZAKO TEKNIKARIAREN ESKUTIK .....	2
MARÍA G. BARBERENA AUZOKO ZINEGOTZIAREN PARTE-HARTZEA.....	2
PROIEKTUAREN LANTALDEAREN AURKEZPENA.....	3
PLANAREN EGUNGO EGOERA, LUPE LECUMBERRIREN ESKUTIK.....	3
AURREPROIEKTUAREN AURKEZPENA LLANOS MASIÁREN ESKUTIK.....	4
HURRENGO URRATSAK, LUPE LECUMBERRIREN ESKUTIK.....	4
GALDE-ESKEEN BLOKEA.....	6
SAIOAREN AMAIERA .....	8
GALERIA.....	9



## SARRERA: DATU OROKORRAK

---

**Data:** 2020/10/26

**Ordua:** 17:00

**Tokia:** Topaketa telematiko. Microsoft Teams aplikazioa erabiltzen da.

**Udal-ordezkariek:** Juan José Echeverría, Hirigintza Alorreko zinegotzi ordezkaria eta María García Barberena, Zabalguneetako auzo-zinegotzia.

**Partaideak:** 40

**Moderatzaileak:** Ainhoa Guelbenzu, partaidetzako teknikaria, eta Lupe Lecumberri, proiektuko partaidetza-taldekoa.

## SARRERA AINHOA GUELBENZU PARTAIDETZAKO TEKNIKARIAREN ESKUTIK

---

Ainhoa Guelbenzu Iruñeko Udaleko partaidetzako teknikariak hasiera eman dio bilerari, eta ongietorria egin die partaide guztiei. Halaber, proposamenak eta galderak posta elektronikoz bidez edo Erabaki partaidetzako plataformaren bidez (esteka [honetan](#)) erantzunen direla azaldu du, eta amaitzeko María García-Barberena auzo-zinegotziari eman dio hitza.

## MARÍA G. BARBERENA AUZOKO ZINEGOTZIAREN PARTE-HARTZEA

---

María García-Barberena auzo-zinegotziak saioaren testuingurua azaldu du, eta lotu du Iruñeko Udalak sustatutako eta Carmen Andrés y Llanos Masiá arkitektura-kabineteak gauzatutako Hiri Jarduketarako Plan Bereziaren proiektuaren garapenarekin. HJPBa 2007ko Udal Plan Orokorraren eguneratze baten barruan kokatzen dela azaldu du.

HJPBaren ezaugarri orokorrak, premisak eta helburuak azaldu ondoren, García Barberenak adierazi du HJPBak berak baduela partaidetza-plan bat, eta xede du auzoaren ikuspegi bateratua eta partekatua lantzea eta partaidetza-kanal bat sortzea ekarpenak, iradokizunak eta abar errazteko.

Zinegotziak, amaitzeko, esan du planaren bigarren fasea amaitzen ari dela, eta, horren ostean, hirugarrena etorriko litzatekeela, behin betiko proiektuaren onespenez definitutakoa. Hala, jarraian aurkeztuko den aurreproiektuari buruz hitz egitera eta hura baloratzera animatu du.



## PROIEKTUAREN LANTALDEAREN AURKEZPENA

---

Atal honetan, partaidetza-taldeko Lupe Lecumberrik hitza eman die, txandaka, proiektuan lan egiten aritu eta bileran daudenei, hala Administrazioakoak nola erredakzio-taldekoak.

Hala, Juan José Echeverría Hirigintza Alorreko zinegotzi ordezkariak hitz egin du lehenbizi, eta parte-hartze labur batean eskerrak eman dizkie proiektuarekin bat egin eta bertaratu diren guztiei (herritarrak, elkarteak...).

Jarraian, Rafael Araujo Hirigintza-plangintza zerbitzuko zuzendariak parte hartzera eta proposamenak egitera animatu ditu, eta jakinarazi du aurkeztuko den agiria jada joan den ekaineko Gerentziako kontseiluan aurkeztu zela.

Hirugarrenik, Llanos Masiá arkitekto andreak bere burua aurkeztu du, eta gaineratu du bere lankide Carmen Andrés ez dagoenez berak bakarrik egingen duela aurkezpena.

## EGUNGO EGOERA, LUPE LECUMBERRIREN ESKUTIK

---

Aurkezpen batez baliatuta (ikusi [hemen](#)), Lupe Lecumberrik Planaren egungo egoerari eta orain arte egindako ibilbideari buruzko informazio orokorra helarazi du. Hala, bileraren edukia eta helburuak zehaztu ditu, ondoren lanaren xedea eta Planaren oinarrizko ardatzak gogorarazteko.

Jarraian, Lecumberrik Planaren fasekako egituraren laburpena egin du eta lehen eta bigarren faseetako mugarrak eta jarduerak komentatu ditu. Hala, berariaz aipatu ditu egindako ekintzak, hala nola elkarrizketa sakonak, egungo egoera aztertzeke lantegia, auzoan barna egindako bisita gidatuak, laburpen-dokumentuak idatzi eta argitaratzea, etab.

Llanos Masiá arkitektoari hitza eman aurretik, Lecumberrik ekintzetan parte hartu duten pertsoneri buruzko informazioa eman du, haien adina, sexua edo lanbide-profila aipatuz.



## AURREPROIEKTUAREN AURKEZPENA LLANOS MASIÁREN ESKUTIK

---

Llanos Masiák hartu du hitza, eta Bigarren Zabalguneko Hiri Jarduketarako Plan Bereziaren diagnostikoa eta aurreproiektua aurkeztu ditu.

Aurkezpen baten bidez (ikusi [hemen](#)), Masiák azpimarratu du HJPBak gaur egun hiri birpentsatzeko ematen duen aukera, hiriaren antolamendua birplanteatzeaz gain, kontuan hartuko baitira 2030eko Agendaren beste helburu batzuk, GJH 11 kasu, zeinak hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortu nahi baititu. Helburu hori Espainiako Hiri Agendaren barruan ere garatzen da (AUE19).

Garapen integratzailearen esparru horretan, eta egungo errealitatea eta herritarrek parte-hartze publikoko prozesuetan egiten dituzten eskaerak aztertuta, bigarren Zabalguneko Plan Bereziak honako antolamendu-helburu hauek ezartzen ditu:

- Erabileren aniztasunari eta egungo zentraltasun-funtzioari eustea
- Espazio publikoa harremanerako eta gizarte-kohesiorako elementu gisa berreskuratzea
- Hiriaren berroneratzea eta eraikinen birgaitzea sustatzea
- Etxebizitza-parkea mantentzea, beste ostatu-modu batzuk sartuta
- Hiri oinezkoentzat lehenestea, garraio motordunarekiko mendekotasuna murriztuz
- Ondare-intereseko elementuak kontserbatzea, hiri- eta natura-paisaia integratuz
- Azpiegitura-sare berde bat sortzea, hiriko gainerako lekuetan integratua
- Hiri ulertzeko eta parte hartzeko kultura sortzea

Bigarren Zabalgunea, azken batean, aldi baterako egoeren eta gizarte-premia desberdinen batura da, non integratu nahi baitira ingurumen-, paisaia-, ekonomia- eta gizarte-eskakizun berriak eta bizitzeko modu berriak; beraz, hori da Plan Bereziak bere gain hartu behar duen erronka nagusia.

Lehen aipatutako helburuei esker ordenazio-proposamen berriak egin daitezke, honako jarduketa-talde zabal hauek ardatz hartuta:

- Eraikitako ehuna
- Ekipamenduak eta espazio libreak
- Eraikinen erregulazioa
- Bide sarea eta oinezkoen bideak
- Ondarea eta intereseko espazioak
- Paisaia
- Partaidetza eta nortasuna



Proposamen horiek jarduketa zehatzagoak barne hartzen dituzte:

1. Eraikitako ehuna: Zabalgunean dauden eraikin-mota desberdinak mantentzea, etxebizitzaren banaketa baimentzea, bertan bizitzeko modu berriak ezartzea eta alokairua sustatzea, irisgarritasun unibertsala eta energia-eraginkortasuna sustatzea.
2. Ekipamenduak eta espazio libreak: Eremuak berriz naturalizatzea landare eta zuhaitzen bidez, plazak eraldatzea eta suspertzea eta espazio publikoa zabaltzea.
3. Eraikinen erregulazioa: oinarri ditu, nagusiki, eraikitako ondarearen kontserbazioa zein birgaitzea sustatzea eta, kasu batzuetan, ordezte. Ordezkapen hori ezin izanen da egin babestutako eraikinetan.
4. Bide—sarea eta oinezkoen bideak: jarduketa hauek kaleak oinezkoendako berreskuratu nahi dituzte, eta iragazkorragoak egin; hots, ibilgailuen zirkulazioa mantendu behar den kaleetan, oinezkoen zirkulazioa lehenetsi beharko da.
5. Ondarea eta intereseko espazioak: Ondarearen babes-maila aldatzea kontuan hartzea, baina eraikuntza geldiarazi gabe. Hau da, erabilia izan dadila. Elementu bereizgarri batzuk berreskuratzeak interesa pizten du, erlaitzak kasu.
6. Paisaia: Hiri-egituraren beste elementu bat da. Paisaia gauza naturalizat hartzera ohituta gaude, baina hemen hiriko eraldaketek eraginen duten aukera-paisaia horri buruz ari gara, izan eraldaketa horiek bide sarean edo egiten diren jarduketetan. Paisaia singularra, zeinak 2. Zabalgunea itxuratuko baitu, hala barrurantz nola kanporantz. Paisaia hiriaren elementu-egituratzailea da.
7. Partaidetza eta nortasuna: Zabalguneak auzotarrek ematen dioten nortasuna du, eta horrek bere egiten du. Zentzu horretan, herritarren partaidetza oinarritzkoa eta funtsezkoa da.



## HURRENGO URRATSAK, LUPE LECUMBERRIREN ESKUTIK

Lecumberrik hitza hartu eta esan du bilera honetan lantzen ari diren dokumentuak "erabaki" plataforman daudela eskuragarri, eta ekarpenak egiteko gune bat dagoela. Espazio horretara jotzen dutenen zeregin nagusia agiria ahalik eta gehien hedatzea eta mugitzea litzateke, hura aztertu eta gero egoki jotzen diren ekarpen guztiak egite aldera.

Hori esan ondoren, galde-eskeen txandari hasiera eman zaio, hala txat bidez nola hitza eskatuta.

Txatean bada lehen galdera bat aparkatzearen inguruan. Gai partikulartzat jo denez, erredakzio-taldeari edo Udalari helaraziko zaio, egokien jotzen denaren arabera.

## GALDE-ESKEEN BLOKEA

Atal honetan guztira 3 lagunek hartu dute hitza:

EGILEA	PARTE-HARTZEA / ERANTZUNA
Juan, Auzotarra	<p><b>Gonbidapena eskertu du, baita plan berria idaztea ere, haren elkarteak eskatu bezala, aurrekoa iraungita baitzegoen.</b></p> <p><b>Agiria berrikusi eta ekarpenak egiteko epea zabaltzea beharrezkoa dela uste du, eta agiri osoa eta ez bakarrik sintesi-agiria helaraztea beharrezkotzat jo du, hala analisi sakona egin ahal izateko. Epea gutxi gorabehera bi hilabetekoa izan daitekeela dio.</b></p>
Proiektua ren taldea	<p>Epeei buruzko balorazioa kontuan hartuko da.</p> <p>Emandako dokumentuari dagokionez, agiri sintetikoa eta berrikusteko erraza dela uste du.</p> <p>Egon litezkeen aldaketak webgunean argitaratuko dituzte.</p>



<b>Enrique Buesa, Auzokideen elkartea</b>	<b>Zangoza kaleko aparkalekuari buruzko proposamena ez da gai partikularra, baizik eta herritar-kolektibo batena, bide administratiboetatik proposatzea xede duena.</b>
Proiektua ren taldea	Gai partikularra da eta hobe da kontu horri espazio honetan ez heltzea, baina kontuan hartuko da eta dagokion departamentuarekin landuko da.
<b>Michel Iturralde</b>	<b>Parte-hartzea zerbait funtsezkoa dela ulertzen da, baina elkarteak ezin izan du ia ezertan parte hartu.</b>
Proiektua ren taldea	Oraindik 3. eta 4. faseei heldu behar diegu, orain arte aurreproiektua baino ez baita egin; beraz, egiteke dagoen horretan parte hartzera animatu du. Geldialdi bat egon da urtebetez, bai, baina oso urte emankorra izan da erredakzio-taldearentzat, teknikarientzat, etab.
<b>Cristina, Auzotarra</b>	<b>Bat dator dokumentazioa zabaltzeko eskaerarekin planeko proposamen zehatzak kontsultatzeko eta ekarpenak behar bezala egin ahal izateko. Denok partekatzen ditugu helburu orokorrak , baina herritarrentzat xehetasun txikiak dira garrantzitsuenak.</b>  <b>Udaleko beste alor batzuen parte-hartze esplizitua falta da.</b>
Proiektua ren taldea	Epeei dagokienez, Erabakin agertuko da daten balizko aldaketa, eta materialei eta parte-hartze prozesuari dagokienez, orain Erabakin dagoen informazioa I. eta II. faseetako da, eta bihartik aurrera egonen da eskuragarri orain erabilitako informazioa, modu zehatzagoan.  Beste Alor batzuekiko koordinazioa aurreproiektu honen indarguneetako bat da.  Planteatutako helburuei dagokienez, eginen den moduan txertatuta eta proiektuan jasota daude, kontuan hartuta azken aldian gertatutako inguruabarren ondorioz sartuko diren aldaketak, hala nola mugikortasunari dagozkionak. Gure egiten ditugu Bidegorrien Planaren proposamenak (2017-2022), eta, beharrezkoa denean, osatuko dugu, baita Azpiegitura Berdeei buruzko Plana ere. Beste alor batzuekin koordinatuta lan egin da eta lan honetan txertatu dira.  Gogoratu orain aurkeztutako agiria 2 partetan banatu dela hurrengo partean ekarpenak jaso ahal izateko, horrela ekarpenak jasotzeko denbora emateko.





	<p>Mugikortasun-alternatibei dagokienez, HJPB hau ez da Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plana (PMUS); beraz, orientabideak orokorrak dira, proiektu hau orientagarria da, Iruñeko Udalarentzat alternatibak ematen dituena.</p>
<b>Auzotarra</b>	<b>Proiektu honen taldea zoriondu nahiko nuke, oso-oso iruditzen zaidalako, eta jakin nahiko nuke ea Zangoza kaleko garajeen taldea kontuan hartu den, Udalari aparkaleku baten beharra adierazi baitiote.</b>
Proiektuaren taldea	Proiektu honek eskaera hori jaso dezake behar den informazioa aurkeztuz gero.
<b>Auzotarra (Txataren bidez)</b>	<b>Ez da sakonean ezagutzen plana eta arriskutsua dirudi, garai ezegonkor hauetan halako tamainako plan bat abiatzea.</b>
<b>Proiektuaren taldea</b>	<p>Jasota dago antolatutako bileretan auzo-elkarteak parte hartu duela, eta taldea irekita dago haien iradokizun eta hobetzeko proposamenetara eta beharrezko harremana izatera.</p> <p>Plana hurbileko hiriaren ikuspegitik pentsatuta dago; beraz, COVID une hau aprobetxatu behar da konfinamendu osteko hiriaren erabilera birpentsatzeko.</p>

## SAIOAREN AMAIERA

---

Eskerrak eman dituzte proiektuan eta gaurko jardunaldian parte hartzeagatik, eta gogoratu dute agiriak ERABAKIn ikusgai egonen direla. HJPBa osatzen jarraitzeko ekarpen gehiago egiteko deia ere egin dute.



Ayuntamiento de  
**Pamplona**

**Iruñeko**  
Udala

T. 948 420 100 /  
010

ÁREA DE EDUCACIÓN,  
PARTICIPACIÓN CIUDADANA Y  
JUVENTUD

Participación Ciudadana

HEZKUNTZA, HERRITARREN  
PARTAIDETZA ETA GAZTERIAKO  
ALORRA

Herritarren Partaidetza

## IRUDIAK

---

